

HIRUGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu.
- **2h 30 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p>IRAKURMEN-PROBA</p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez.</p>	50-60 min.	20	10
<p>IDAZMEN-PROBA</p> <p>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz-kopurua bete. Eskatutako hitz-kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p>	90 min.	30	15

- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, zuretzat da.
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan** egin.
- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

3. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa

Irakurri ondorengo testua. Hurrengo orrian agertzen diren **bi zutabeetako esaldiak** elkarrekin **lotu** behar dituzu (1, 2 3...) eta (A, B, C...). Osatutako ideiek bat etorri behar dute testuko informazioarekin.

Irakurri testua lehenengo.

Bigarren zutabeko **esaldi bat sobera** dago.

IRUZURRAREN AURPEGI BERRITUAK

Guztiok pentsatu dugu noizbait lanik egin gabe dirua erruz irabaztea, baina inoiz ez da gauzatzen. Badaude pertsonak, ordea, dirua erraz irabazteko inoren nahiari etekina ateratzen ikasi dutenak: iruzurgileak. Batzuen uste ona eta besteen diruzalekeria lagun, dirutza irabaz dezakete. Urte askoan kalean *lan* egin izan dute, baina teknologia berriekin, batez ere Internet bidez, mundu osora hedatu dira. Estanpatxoaren ziria, loteria-txartelarena, paper tindatuak edo *wash-wash...* betiko iruzurrak dira, baina azken urteetan beste iruzur mota batzuekin lehian dabilta, Internet bidez egiten direnekin, batik bat. Horietatik, zabalduenetako bat *phishing* delakoa da.

*Phishing*ean, iruzurgilea hasieran ez da biktimaren diruzalekeriaz baliatzen, haren uste onaz baizik. Arrantzaleek arrainak nola, iruzurgileak bere sarean erortzen direnen datuak lortzen ditu, kutxa eta banketxetakoak. Horretarako, kutxa edo banku ezagun baten irudiarekin mozorrotzen dute iruzurra, eta ontzat jo daitekeen helbide bat erabiltzen dute mezu elektronikoko bat bidaltzean; bertan, zenbait arazo direla medio, datuak eskatzen dizkio ordenagailuaren erabiltzaileari: kontu korronteen zenbakiak, kreditu-txartelenak... Errusia eta Errumaniatik heltzen dira mezu horiek, han baitaude iruzur horiek egiten dituzten mafiak, eta, Interneti esker, mundu osora heltzen dira.

Lortzen duten diru *zikin* horri irteera emateko, mafiek Internetera jotzen dute *laguntzaile* bila, dirua erraz irabazteko eskaintzen bidez. *Phishing*aren bigarren pauso horretan ohiko iruzurren jatorrira jotzen dute: pertsonen diruzalekeriara. Hala, mezu horiei erantzuten dieten pertsona gehienak lanean ari dira, baina diru beltzeko beste irabazi batzuk nahi dituzte.

Interneteko eskaintza onartzen dutenak dirua zuritzeko sarean sartzen dira; askotan, delitu egiten ari direla ere jakin gabe. *Mandoak* deitzen diete poliziek. *Mandoak* bere izenean dagoen kontu korrante bat eskaintzen die mafiei, eta *phishing*aren bitartez eskuratutako dirua bertan sartzen diote. Gero, *mandoak* diru hori beste toki batera bideratu behar du, baina diru-hartzailearen daturik ez da gordetzen bidalketan, dirua bidaltzen duenaren nortasuna baino ez da gelditzen agerian, eta horiexek atxilotzen ditu poliziak.

Internet bidezko beste iruzur bat *419* izenekoa da. Posta elektronikoz, hainbat eskaintza jasotzen ditu biktimak dirutza jasotzeko aukerarekin: loteriako sari bat dela, ezezagun baten herentzia... edozein arrazoi da ona, baina hori lortzeko, tramite batzuk egin behar omen ditu, eta aurrera egin ahala, zerbait ordaindu, dirua aurreratu; dirua emandakoan, ordea, agur jarritakoari. Iruzurraren izena Nigeriako Zigor Kodetik dator, 419. artikulua urratzen duelako, hain zuzen ere. *Phishinga* eta “419 iruzurra” urte osoan gertatzen dira, baina bereziki indartu egiten dira gabonetan, opariak erosteko eskaintza «deigarriak» dirua lapurtu eta datu pertsonalak eskuratzeko amuak izaten direlako, eta asko dira erortzen direnak.

Internet bidezko iruzur horiez gain, ohiko iruzurrak ere erabiltzen dira. Adibidez, Bizkaian, piramide-itxurako maula salatu zuten. Hogeita hamar familia inguruk bi inbertitzailearen aurkako salaketa jarri zuten. Duela hamar urtetik, inbertitzaile horiek interes handia (%15) ematen zieten inbertsiogileei, baina bezeroek inbertsioa berreskuratzeko asmoa zutenean, aitzakiak jartzen zituzten ez itzultzeko. Dirudienez, bi inbertitzaileek bezero berrien dirua erabiltzen zuten hasierako bezeroei interesak ordaintzeko. Batez beste 300.000 euro galdu ditu salaketa jarri duen familia bakoitzak, eta batzuek 900.000 euro ere bai. Bi inbertitzaileak desagertuta daude gaur egun.

Hogeita hamar familia horiek gaia auzitara eraman dute, baina beste askok ez dute berdina egingo, ohikoa baita isilik geratzea eta ez salatzea, biktimaren diruzalekeria tartean dagoelako. Horregatik, zaila da iruzurren zenbatekoa jakitea.

Azkenik, paper tindatuen iruzurra –*wash-wash* esaten zaiona– aski ezaguna egin da azken hilabeteetan. Iruzurgileak biktimari sinetsarazten dio tindatutako paper batzuk likido batekin bustitzean erabilera legaleko billete bihurtzen direla, eta likidoak saltzen dizkio paperak billete bihurtzen dituzan.

REJADO, J. Berria. 2010eko abendua. Egokitua.

■ 1. ariketa. Lotu bi zutabeak.

1 ZUTABEA

2 ZUTABEA

1. Iruzurgileak beti egon dira, baina azkenaldian kaletik Internetarako jauzia egin dute;
2. <i>Phisinga</i> arrantzarekin alderatu daiteke, arrantzaleek sarea nola, horrelaxe botatzen baitute sarea iruzurgileek;
3. <i>Phisingean</i> , diru zikina zuritzeko prozesuan, laguntzaileak behar izaten dira;
4. <i>Mandoetako</i> askok ez dakite legea urratzen ari direnik;
5. 419 iruzurraren izena Nigeriako Zigor Kodeko artikulua batengatik da;
6. Gabonetan areagotu egiten dira Internet bidezko iruzurrak;
7. Bizkaian 30 lagunek bi inbertitzaile salatu dituzte, piramide-itxurako maularengatik;
8. Iruzurretan ez da erraza izaten jakitea egindako kaltea zenbatekoa den;
9. <i>Wash-wash</i> iruzurrari paper tindatuena ere deitzen zaio;

A. eskaintzak ohi baino nabarmenagoak izaten dira.
B. beste iruzurretan ez bezala, lehenago kopuru bat jarri beharra dauka biktimak.
C. orduan biktimak ez du imajinatu ere egiten jarritako dirua ez duela gehiago ikusiko.
D. funtsean oinarri berbera aprobetxatzen dute: jendearen konfiantza eta diru asko erraz irabazi nahia.
E. izan ere, gutxi batzuek baino ez dute salatzen, ez delako samurra aitortzea diru errazak itsutu dituela.
F. iruzurra gauzatzeko, berebiziko garrantzia ematen diote iruzurra ondo estaltzeari, lehenengo biktimaren konfiantza lortu behar baitute.
G. diru-goseak eramaten ditu galbidera, berez gehienak ez baitira diru-premia dutenak.
H. biktimei sinetsarazten diete likido baten bidez diru-billeteak erraz egin ditzaketela.
I. batzuek, utzitakoa bueltatzea nahi izan zutenean, aitzakiak baino ez zituzten jaso, dirurik ez.
J. diru-igorlearen arrastoa baino ez da geratzen agerian eta horri heltzen dio poliziak.

1 ZUTABEA	1	2	3	4	5	6	7	8	9
2 ZUTABEA									

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

3. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ZINPEKO ITZULTZAILE ETA INTERPRETEAK

Zinpeko itzulpena agiri baten itzulpen ofiziala da, erabateko balio juridikoa duena, zinpeko itzultzaile batek egindakoa. Itzultzaileak sinadura eta zigiluarekin ziurtatzen du itzulpena jatorrizko hizkuntzan idatzitako agiriaren edukiarekin guztiz bat datorrela, eta jatorrizko hizkuntza, tokia eta data adierazten ditu itzulpenean.

Zinpeko itzulpena nahitaezkoa izan daiteke atzerriko hizkuntza batean egindako agiri ofizial bati (dela titulazio akademikoa, notario-eskriturak edo adopzio-txostena) balio juridikoa aitortzeko. Sinaduraren eta zigiluaren bitartez itzultzaileak bere erantzukizunpean hartzen du jatorrizko testuaren eta itzulpeneko testuaren arteko baliokidetasuna. Horrela, itzulpenean akatsen bat egonez gero, eta horrek ondorio juridikorik izanez gero (kalte ekonomikoa, edo lege-ondorio penalen bat, adibidez), itzultzailea izango litzateke erantzulea. Zigilua lortzeko, zinpeko itzultzaile-edo interprete-habilitazioa lortu behar da, dagokion hizkuntza-bikotean.

Euskarari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 2009ko apirilean onartu zuen zinpeko itzultzaile eta interprete gisa aritu ahal izateko gaikuntza profesionala arautzeko dekretua, bai euskaratik beste hizkuntzetarako eta bai beste hizkuntzetatik euskararako itzulpen eta interpretazio-lanetan jarduteko. Horretarako, probak arautu behar zirela jasotzen zuen eta, horrezaz gain, zinpeko habilitazioa dutenen erregistroa sortzea ere jasotzen du dekretu horrek. Lehenago ere baziren euskara/gaztelania hizkuntza-bikoterako habilitazioa zuten itzultzaile eta interprete batzuk, Espainiako Kanpo Arazoetako Ministerioko Hizkuntzen Bulegoak egin baitzituen probetarako deialdiak 1989an eta 1991n. Baina geroztik ez zen euskarara eta euskaratik zinpeko itzulpenak eta interpretazio-lanak egin ahal izateko habilitazioa lortzeko modurik izan, 2010 arte.

Euskara/gaztelania hizkuntza bikoterako habilitazioa lortzeko probetarako deia 2010eko urrian egin zen, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearen eta Herri

Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariaren ebazpen bidez, eta 2011n zehar egin ziren probak. Baina urte askotan probetarako deialdirik izan ez denez, aurretik salbuespeneko beste deialdi bat egin zen, 2010eko ekainean, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ebazpen bidez, habilitazioa merezimendu bidez lortu ahal izateko. Horretarako bete beharreko baldintza zen lege-, administrazio- eta ekonomia-arloetan itzulpenak egiten eta interpretazio-lanetan 12 urtez jarraian aritu izana. Deialdi hori salbuespeneko izan zenez, bakarra izan da eta ez da gehiago egingo.

Habilitazioa eskuratzeko beste bide bat Itzulpengintza eta Interpretazioko tituluaren jabe izatea da, baldin eta unibertsitateko ziuertagiri akademikoaren bidez baieztatzen bada lege-, administrazio- eta ekonomia-arloetan itzulpenak egiteko prestakuntza, hizkuntza bikote jakin batean. Aurrerantzean, euskara/ingelesa eta euskara/frantsesa hizkuntza bikoteetarako deialdiak ere egingo dira.

Itzultzaile zein interprete lanetarako habilitazioa lortu dutenen erregistroa ere arautu da Kultura sailburuaren agindu bidez. Euskaratik beste hizkuntzetarako eta beste hizkuntzetatik euskararako zinpeko itzultzaile- nahiz interprete-lanetarako habilitatutako pertsonak inskribatuko dira erregistroan. Oraingoz, euskara/gaztelania hizkuntza-bikoteko itzultzaile eta interpreteak bakarrik ageri dira bertan, oraindik ez baita egin euskaratik beste hizkuntza batzuetarako eta beste hizkuntza batzuetatik euskararako habilitazioa lortzeko probetarako deialdirik. Horrezaz gain, herritarrek zinpeko itzulpenak egiteko habilitazioa duten profesionalen berri izan dezaten, lan horietarako izendatutako guztien artean datuak argitaratzeko interesa agertu eta horretarako baimena eman dutenen zerrendak Eusko Jaurlaritzaren webgunean jarri dira ikusgai.

IMAZ, M., *Administrazioa euskaraz*, 74 zk. Egokitua

3. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa. Aukera anitzeko galderak.

1. **Zein da zinpeko itzultzailearen bereizgarri nagusia?**
 - a) Hizkuntza batean dagoen agiri ofizial bat beste hizkuntza batera itzultzea.
 - b) Bere lanak sinadurarekin entregatzea.
 - c) Bere gain hartzea itzulitako testua eta jatorrizkoa baliokideak izatearen ardura.
2. **Zein zen Eusko Jaurlaritzaren 2009ko apirileko dekretuaren xede nagusia?**
 - a) Zinpeko itzultzaile eta interprete lanetarako gaikuntza arautzea.
 - b) Itzultzaileen eta interpreteen sektorea normalizatzea.
 - c) Euskara beste hizkuntzen mailako itzulpen-hizkuntza izateko aurrerapausoak ematea.
3. **Zer ekarri zuen 2009ko apirileko dekretuak?**
 - a) Zinpeko itzultzaile eta interprete izateko bete beharreko baldintzak.
 - b) Zinpeko itzultzaile eta interpreteen gaikuntzarako probak erregulatu beharra.
 - c) Itzultzaile-lanetan aritzen direnen erregistroa sortzeko premia.
4. **Zertan zen euskarazko habilitazioa 2009ko dekretua atera baino lehen?**
 - a) 2010era arte ez zen izan modurik euskaratik eta euskararako habilitazioa lortzeko.
 - b) Eusko Jaurlaritzak eskumena hartu aurretik ez zen izan batere deialdirik.
 - c) Espainiako Administrazioak egin zituen deialdiak.
5. **Zergatik eman zen habilitazioa merezimendu bidez egiaztatzeko aukera?**
 - a) Ohikoa delako Administrazioak salbuespenezko deialdiak eskaintzea.
 - b) Denboraldi luze batean ez zelako inolako probarik izan.
 - c) Itzultzaile eta interprete ugari berriak eskaera egin ziotelako Administrazioari.
6. **Zer ezaugarri nagusi zeukan habilitazioa merezimendu bidez lortu ahal izateko deialdiak?**
 - a) Edozein itzultzaile edo interprete aukera izatea parte hartzeko.
 - b) Ez ohikoa izatea eta behin baino ez egitea.
 - c) 2009ko dekretuak araututako proben ostean izatea.
7. **Besteak beste, nola lor daiteke euskara/gaztelania hizkuntza-bikoterako habilitazioa?**
 - a) Arlo jakin batzuetan Itzulpen-gintza eta Interpretazioko unibertsitate-ziurtagiria izanda.
 - b) Ikastaro berezi bat eginda, lege-ikasketak egin ostean.
 - c) Arlo jakin batzuetan eta gutxieneko urte-kopuru batean itzultzaile eta interprete arituta.
8. **Nork eman dezake izena Kultura sailburuaren aginduz eratutako erregistroan?**
 - a) Hizkuntzetako bat euskara duen edozein itzultzaile edo interpretarik.
 - b) Datuak argitaratzeko prest daudela adierazi eta horretarako baimena eman dutenek.
 - c) Euskarako zinpeko itzultzaile edo interprete lanetarako habilitatuta dagoenak.
9. **Zein da erregistroaren xedea?**
 - a) Eusko Jaurlaritzak zeregin horretan jardun dezaketenen datu-base eguneratua izatea.
 - b) Zinpeko itzultzaile edo interpreteen lehiakide iruzurgileak saihestea.
 - c) Itzultzaile lanetan nor aritzen den jakinaraztea herritarrei.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

3. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati **bat sobera** dago.

LLANGOLLENGO BILDOTSAK

1987ko udan Galesera joan ginen Garth, Mike, John eta laurok. Bidaiako lehenengo eguna Manchester aldean eman ondoren, Llangollenerantz abiatu ginen. **1** «Zergatik dute ardi horiek marka gorri bat gorputzean?», galdetu nuen. «Txernobylgo erradioaktibitateak kutsatuta daude», erantzun zuen Garthek.

Ukrainako hondamendi nuklearretik ia mende laurden pasatu bada ere, arazoa ez da konpondu. Haizeak milaka kilometrora, Gales iparralderaino, eraman zuen Txernobylgo erradioaktibitatea, eta euri bortitzak goiko larreetan utzi zuen. Pozoiak han segitzen du. **2** Gobernuko funtzionarioek abereen erradioaktibitate maila neurtzen segitzen dute, bildotsek bazkarako dituzten larreak oraindik ere kutsatuta daudelako. Glyn Robertsek, Galesko Nekazarien Elkarteko presidenteordeak, badaki haiena ezer gutxi dela Ukrainako egoeraren aldean: «Guretzat zama bat da, baina haientzat heriotza-mehatxua. **3**».

Noiz arte egongo dira kutsatuta Galesko larre eta bildotsak? Noiz arte izango da Fukushima lur errea? Ez dut ulertzen Japoniako lurrikarak eta tsunamiak zentral nuklearrean eraginiko istripuaren harira hemengo botereak hedatu nahi izan duen mezua. **4** Lasai heldu behar zaio gaiari, antza; hoztu egin behar gara, bestela ez ditugu-eta ondo ulertuko orain hozteko eskatzen digutenek gero kaskoak berotzeraino errepikatuko diguten leloa:

energia nuklearra beharrezkoa, garbia eta segurua dela.

Orain ez omen da eztabaidatzeko unea. Horixe nuklearren aldeko agerikoen eta ezkutuko zinismoa. Orain ez bada, noiz da, ba? **5** Inoiz lortuko ez den erabateko segurtasuna saltzeko neurrien berri ematen dutenean, badugu baimena gaia aztertzeko. Energia nuklearraren arriskuak gordin ageri direnean, ordea, aparkatu egin behar da auzia. Umeak bagina bezala tratatzen gaituzte. Burua hotz eduki behar omen da. Herri honetan erabaki asko, gehiegitxo, hartu dira bero-beroan egoera hotzean aztertu barik —gure egoera politikoari eragiten dioten ebazpenak datozkit gogora—. **6** Kopeta ederra gero!

1972an zentral nuklearra eraikitzen hasi ziren Zwentendorf (Austria), Vienatik 32 kilometrora. Plantaren kontrakoek mugimendu handia eratu zuten. Protesta-ekintza asko izan ziren, bederatzi amak Bruno Kreisky kantzilerraren egoitza instituzionalaren aurrean eginiko gose-greba, kasu. 1978an erreferenduma egin zuten Austrian: boto-emaileen %50,47k zentralaren kontra bozkatu zuten. **7** 2009an eguzki-energia planta ireki zuten Zwentendorf. Energia atomikoa ekoizteko zen eraikina energia naturala sortzeko tresna da egun.

PASTOR, J.M. Berria, 2011ko martxoa.
Egokitua

3. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa. Sartu testu zatia dagokion hutsunean.

- A. Gurea oso ordain txikia da haienarekin konparatuz gero.
- B. Orain ez omen da unea zentral nuklearrei buruz mintzatzeko; emozioek ez omen digute laguntzen afera osotasunean eta modu egokian ulertzen.
- C. Galesko paisaia berdea, garbia, idilikoa iruditzen zitzaidan, abere haiek ikusi nituen arte.
- D. Horren haritik, ezin ahaztu gurean egin genuen eskapada, hor baitaukagu oraindik, zutik, Lemoizkoa.
- E. *Daily Post* egunkariak horren berri eman zuen iazko udan: Galesko 300 abeltzainek baino gehiagok ezin dituzte 180.000 bildots saldu.
- F. Erabaki horiek beroan bultzatu dituzten politikariak dira orain energia nuklearraren gaia hotzean aztertzeko eskatzen digutenak.
- G. Ustezko segurtasuna erabiltzen dute, bai, argudio gisa, baina ezustekoren batek segurtasunaren ispilua birrintzen duenean, segituan alboratzen dute gaia.
- H. Hortxe amaitu zen kontua. Lanak gelditu egin ziren.

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7
Testu zatiak							

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

3. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU
ARIKETAK, HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN EGIN BEHAR
DITUZU**

■ **1. ariketa**

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** egin behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA:

Beste lankide batzuekin batera, lanordutan ikastaro interesgarri bat egitea eskatu zenuen, lanerako oso baliagarria izango zenuelakoan. Gaur jakin duzu beste lankideek ikastaroa egingo dutela eta zuk ez. Azalpenak eskatu dizkiozu arduradunari, baina ez dizu eman taxuzko arrazoirik. Gorago jotzea erabaki duzu, nagusiarengana.



Idatzi eskutitza dagokionari. Azaldu zer gertatu den, zergatik iruditu zaizun interesgarria ikastaro hori egitea, erabakia zergatik ez den bidezkoa, eta eskatu erabakia berrikusteko.

■ **2. ariketa: Iritzi-artikulua herriko aldizkarirako**

- Egoera kontuan hartu eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- Idatzi 180 hitz gutxienez.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Egin testu antolatua eta koherentea. Azaldu iritziak, garatu eta lotu daukazun ideiak. Hortaz, ez kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak.

Egoera: Krisi ekonomikoa eta langabezia areagotzen ari dira. Zure herriko biztanle asko egoera zailean bizi da. Udalak kirol-ekintza batzuk antolatu ditu herritar horiei lagundu nahian, kirola egiteak abantaila ugari baititu. Ados al zaude Udalaren erabakiarekin? Idatzi artikulua zure iritzia azaltzeko.

Gaia: KIROLA ARNASBIDEA DA?

<p>Kirola egiteak onura gehiago ditu kalteak baino eta asko laguntzen du, besteak beste, bizi-kalitatea eta ongizate psikologikoa lortzen, gogoaldartea hobetzen, autoestimua areagotzen eta estres gutxiago izaten.</p>	
<p>Guztionez da ona kirola, edozein adinetan, neurrian eginez gero.</p>	<p>Gero eta aukera gehiago dago kirola egiteko, baina, hala ere, beti uzten dugu hurrengorako.</p>
	<p>Beharbada, gaurko gizartea itsututa dago kirolarekin eta hori ere ez da ona. Kirola lehia da eta emaitza onak lortzen ez badira, porrot-sentsazioa ager daiteke.</p>

- Erakunde publikoen zeregina al da jendea kirola egitera bultzatzea?
- Garrantzitsua al da kirola egitea? Zein da bere helburua?
- Zer aukera eta zailtasun izaten ditugu kirola egiteko?
- Lehentasunen artean egon beharko luke kirolak gure bizitzan? Zergatik?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

3. HE / IRAKURMENA

ERANTZUN ZUZENAK

- 1. ariketa: Lotu bi zutabeak
- Irakurgaia: «IRUZURRAREN AURPEGI BERRITUAK»

1 ZUTABEA	1	2	3	4	5	6	7	8	9
2 ZUTABEA	D	F	G	J	B	A	I	E	H

C. aukera sobera dago.

- 2. ariketa: Aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: «ZINPEKO ITZULTZAILE ETA INTERPRETEAK»

1.	C	6.	B
2.	A	7.	A
3.	B	8.	C
4.	C	9.	A
5	B		

- 3. ariketa: Sartu testu zatia dagokion hutsunean
- Irakurgaia: «LLANGOLLENGO BILDOTSAK»

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7
Testu zatiak	C	E	A	B	G	F	H

D. aukera sobera dago.